

Irunberriko arroilan

Euskal Herriak paraje ikusgarriak ditu ibilaldiak egiteko. Oraingoan Nafarroara joango gara, Irunberrira, hain zuzen. Hango arroilan trenak utzitako bidean zehar ibiliko gara eta ikuspegiak gozatuko dugu.

NONDIK NORA JOAN

Lehenik, Irunberritik arroilarako bidea hartuko dugu autotik jaitsi gabe. Errepidea bukatzean topatuko dugun aparkalekutik abiatuko gara. Ezkerretik ateratzen den bidexkatik, poliki-poliki gora egingo dugu eta Alzueta bordaren ondotik pasatuko gara.


Gero, lurrezko bide zabalago batera heltzen garenean, eskuinera jo eta beherantz egingo dugu Irati ibairen ertzeko trenbide zaharrerantz.

Jarraian, trenbidetik aurrera egingez, tunel batera iritsiko gara, baina zeharkatu aurretik, Deabruaren zubira gerturatuko gara, handik arroilaren ikuspegi ederra dago-eta. Tunelaren beste aldean arroilaren harrizko horma garaiak ikusiko ditugu ibaiaren ertzetan. Arroilak kilometro bateko luzera du gutxi gorabehera. Antzinako trenbidetik aurrera jarraituz, trenak zeharkatzen zuen bigarren tunelera iritsiko gara.

Azkenik, tunelaren beste aldean, atsedenleku bat aurkituko dugu, ogitartekoa jateko aproposa. Atsedena hartutakoan, pare bat minutuz ibili eta hasierako aparkalekuan izango gara berriz.

Baietz tren zaharraren bideak zu liluratu!

Nora aldizkaria (moldatua)



Aukeratu erantzun zuzena.

1 Non zehar doa testuko ibilbidea?

- A. Nafarroako basoetan zehar doa.
- B. Nafarroako Irun herritik zehar doa.
- C. Nafarroako Irunberriko arroilan zehar doa.
- D. Iruñeko trenbide zaharrean zehar doa.

2 Nondik abiatuko gara oinez?

- A. Irunberritik abiatuko gara.
- B. Aparkaleku batetik abiatuko gara.
- C. Alzueta bordatik abiatuko gara.
- D. Tren geltokitik abiatuko gara.

3 Zer aurkituko dugu bidean zehar?

- A. Bi borda, bi zubi, tunel bat eta atsedenleku bat.
- B. Bi borda, bi tunel, zubi bat eta atsedenleku bat.
- C. Bi tunel, borda bat, zubi bat eta atsedenleku bat.
- D. Atsedenleku bat, borda bat, tunel bat eta zubi bat.

4 Zertarako gerturatuko gara Deabruaren zubira?

- A. Deabrua ikusteko.
- B. Ibaiaz beste aldera pasatzeko.
- C. Trenbidea zeharkatzeko.
- D. Arroilaren ikuspegi ederra ikusteko.

5 Antzina, zer izan zen egin dugun ibilbide hori?

- A. Meategi bat zen.
- B. Errepide bat zen.
- C. Trenbide bat zen.
- D. Gurdibide bat zen.

6 Zer testu mota da irakurri duzuna?

- A. Gertakari bat azaltzen duen albistea.
- B. Errezeta bat egiteko argibideak dira.
- C. Ibilbide bat egiteko orientabideak dira.
- D. Arautegi bat da.

7 Zer osagai ditu testuak?

- A. Testua baino ez.
- B. Argazkia eta testua soilik.
- C. Mapatxoa eta testua.
- D. Testua, argazkia eta mapatxoa.

8 Nola dago azalduta ibilbidea?

- A. Pauso guztiak, baina era nahasian.
- B. Bukaeratik hasieraraino.
- C. Hasieratik bukaeraraino.
- D. Ibilbidearen erditik aurrera.

9 Zer hitz erabiltzen ditu egileak testua antolatzeko?

- A. Atzo, gaur, bihar eta etzi.
- B. Hemen, hor eta han.
- C. Lehenik, gero, jarraian eta azkenik.
- D. Ni, zu, gu eta haiek.

10 Non agertu ohi dira horrelako testuak?

- A. Ipuin-liburuetan.
- B. Aldizkarietan eta egunkarietan.
- C. Antzerki-lanetan.
- D. Telebistako iragarkietan.